# Fedezco Actac.

Nic sinestenrut fielqui, Jesu Christo nere Jauna, zure hon izate ecin faltatuac. Eliza Saindu Catolicoac sinesten, eta confesatcendu-en hura gucia, eta beressiqui sienesten, eta aitorcendut Trinitate Sainduco Misterioa; Aita, Semea, eta Espiritu Saindua, irur Presuna distintoac, eta equiazco Jainco bacar-bat infinituqui hona, iaquinduria, poderosoa, gauza gucien astea, eta acabanza, eta presu-na bacochean dela Jaincotasun bat bera, adi-mentu bat berarequin, vorondate bat berarequin, bardintasun choil perfectarequin, iaquinduri-a, nehurri gabetasun, eta hon izatearequin.

Sinestendut eta aitorcen Jesu Christo nere Jauna, Jainco Iciaren Seme bacarra zarela, Trinitate Sainduco bigarren presuna, eta gui-zon equincinela Virgina Maria Sainduaren sabel sacratuan. Eta halaber sinestendut Jainco equiazcoa zarela, eta guizon equiazco-a, bi naturaleza edo izaira presuna batean,

R. 30187

eta presuna bat bi naturaleza edo izairetan, baitira hauc Jainconzcoa, eta Guizonezcoa. Eta bada nic, naiz izan becatari miserable bat, aitorcenzaitut mundu guciaren aitzinean, ez nazazu ucá zuc nere Jesus eztia zure Aita eternoaren aitcinean nere hericeco orduan.

Sinesten dut, Jauna, nere eta berce becatarien erremediatceco, jautsicinela Cerutic lurrera, eta milagrosqui Espiritu Sainduaren obraz eta virtutez guizon eguincinela Virgina Sainduaren sabel sacratuan, eta han egoncinela bederatci illabetez aurchoa, hilcorra, eta pairacorra, errecivitcen cinuelaric Anaire Soberana hunen ganic aragui guizonezcoa, eta ianaria edo alimentuá, hunen eztitasunera helcen naiz confiatuqui, errecivi dezan piadosqui nere arima mundu huntaric ateratcen denean.

Sinesten dut eta aitorcen, Jesu Christo nere Jauna, nitaz, eta berce becatariez pairatu cinituela azoteac, tuac, beharondocoac, eta escarnioac, eta Pilatosen sentenciaz t-

-zancinela condenatua Guruceco heriotcera?
celaric hau laidagarriena, eta dolorosena;
eta hartan ezarria Calvarioco mendian, bi
lapurren artean nahastaria eta gaizqui eguilea bezala, eta han arzain ona bezala hilcinen ardien gatic, eta izan cinen ehorcia, eta piztucinen irurgarren egunean, eta igancinen Ceruetara Virgina Santissimarengandic artucinuen aragui berarequin; eta etorrico zarela hilen, eta vicien iuzgatcera.

O Jesus maitagarria! Cer eguen cinuen hunela tratatua izateco? Cer eguin cinuen hunela condenatua izateco? Cein cen zure becatua? Cein zure oguena? Cein zure heriotcearen causa? Ni, ni, Jauna, naiz zure dolorearen zauria, ni naiz zure penaren causa, ni zure oñaceen merecitzallea.
O Sentencia miresgarria! O misterio ecin comprenitua! Gaistoac becatu eguitendu, eta iustua da castigatua. Gaistoac ofenditcendu, eta iustua da condenatua. Gaistoac merecitu duen pena; iustac, onac

-pairatcendu: esclavoaren zorra iaveac pa-
-gatcendu: Guizonaren oguenaz Jaincoa hil-
-tcenda.

O Aita Eternoa! Onere maitat-
-zalle maitagarria! Posible da nere ganaco
amodioac obligazatzaquela zure semea bi-
-haltcera nere erremediatceco? Ai ene Ja-
-incoa! Cer dembora asquico dut zure on-
-equin andi hau ogarceco? Cer mihi aguer-
-leco? Cer vorondate paguatceco? Nolaco amo-
-dioarequin, nere hori beticoa, hiardetsicodiot
zure amodio inmutagoue humi? Alegratcen-
-nahiz nere Jaincoa, zu nere Jaincoa izanaz,
eta maitatu nahicintuzquet nerorr baño gue-
-iago, bada zuc maitecago nauzu ni, gueioc
zu maite zaitugun baño.

O nere Jesus eztia! Cein maitaga-
-rria eguiten zaituen nitaz sufritucinuen he-
-riotceac nere erospeneco obran! Hunec bacar-
-rrac escatcendu nere amodio gucia: hunec
deitcen nahu estiqui, hunec beharcen nahu iu-
-ticiaz, hunec estutcen nahu, zu nehiurtiric

gave maitatcera. O Caridadearen gaindia! O humildadearen prodigioa! O misericordiaren andia! O hon izate ecin comprenituaren ondatceia! Eman biezat, Jauna, zure amodioac vicia, bada nereganaco amodioac emanzarzun heriotcea. Otoizten zaitut humilqui nere Eroste piadosoa, eman diezadazun gracia, hil nadien zure legue Sainduan, cein profesatzen baitut bihotz guciz. Eta bada iganzinen Gurutceco zur preciosora Ceruco ontasun andienac guiri ematceo, eta lurreco vihotz guciac zureganatceco: eramanzazu nere biotza zure ondoric, izan nadien hala araguian nola espirituan itzatua zur haren precioso eta esâcumearrian, eta ezdezadan bercerie maita zu baicen ene Jaincoa.

## Contricionezco Acten bacariztea c.

Etzaitecila oroitu, ene Jainco eztia, neregânic errecibituditutzun iraines, eta barcacitzu nere oguenac, zu zarenagatic, eta humela ezda izanen nerebaitan atsecaberic emandiezaguezun gauzaric; ceren segur baita, Jauna,

damududala, austeaz nere baitan oguen
cusuric.

Ea, Jainco eztia, eznazazu bota
zure aitcinetic, eznazazu equen zure gracia-
tic, nere becatuec merecihagatic, aicitic
zure bihotz beraren aravera, urricaltzaite-
nitaz, lauda zaitzadan, eta betiecotz cantadet-
zadan zure misericordiac.

Veguira nazazu, Jauna, misericor-
-diazco veguiequin, eta erzaitecila hoartu be-
-rant elduñaicela zure gana, bada ezda be-
-rant eldu, Magdalena bezala ahaspescatu-
-ric zure hoin Sainduetan, urriquituric zu
ofenditruaz, bere becatuen barcamendua vi-
-hotzeco nigarrequin galderecen duena.

Horai, Jauna, zure hoin Sainduetan
naducazularic, haren confianza andia dut
zure baitan, non ezbainaiz aldaratuco hau
turic, zuc nere becatuac barcatu artaraño
ceren segur bainaiz nere arimaren osa-
sun equiuazcoa dagoela zure hoin nere amo-
dioz zaurituetan.

Hahandicitzu, Jauna, nere gazte-

-tasunec peccatuac, ezta ere oroitu nere gais- 54
-taqueriez, eta ignoranciez; aitzitic daquidala zu-
-re misericordia andia, ceren pobre erremesa
bainaiz, eta ecin paga baitezaquet zor zaitu-
-dana. Eguia da, nere Jaincoa, eta ezdut
ucatcen munduco criaturaric gaistoena naï-
-cela, bada eldu nabiz zuregana, asseric de-
-monioa cervitzatceaz, eta ezdareque ecus,
nore ofenditu zaituen nic adina, harenberce
beneficio zure escu beratcheraric errecibitu
ondean; halaric ere esperatcendut barca-
-tuco daztazula, ceren eldu bainaiz nere culpez
urriquituric, eta ezaguturic ezdela aitcina-
-menduric zure baitan baicen; beraz Jaun
beratcha errecivi nazazu horai, eta eznaza-
-zu desampara.

Badaacusat, Jauna, iustuqui asserre-
-tua zaudela nere contra, ceren nere vicico e-
-gunac ioatu baititut zure ofenditceen, em-
-pleatu behar nituelaric guciac zure maitat-
-cen; eta cervitzatceen: bañan hai ene! haren
berce gaistaqueria eguin diodalaric zure

presencia Saindutsuan cer izanen naiz nitaz? Ya eznahiz ausartatzen berce Publicano bat-bezala veguiac Cerurat alchatcera. Non gordetuco nahiz zure aserreduraren aitcinean, eta norat hies equinen dut zure gana baicen, zarelaric zu nere hies lecu bacarra, eta amparoa. Bañan hai ene! Cer equinen dut nic becatari miserable eta dohacabeac zure baquetceco, eta zuc ni zure gracian errecivitceco? Erregatuco ditut, Jauna, zure hoin sainduac nere trihorceco nigarrequin, eta besarcatuco ditut milla aldiz, eta bada preciatcen zara misericordiaren aita izateaz, usatcitzu nerequin: eznadiela equen ni zure presencia Saindutsutic, nondic harenberce atera baitira barcatuac, bada hoyez gueiago irabacico duzu ni salvatcean, condenatcean baño.

Eztdaquit, Jauna, eguin ote dudan lan honic, ecuenez berthea naiz, eta merecimenduric gabe cer alegatu, zureez valiatcen nahiz, nere Jesus eztia, ecen haue

infinituqui valiosac direlaric, hautan dago nere esperanzaren sostenoua.

Ez ote zara zu, nere Redemptorea, Jaun bihotz berà hura, zure misericordia haren liberalqui aguertu cimena Evangelioco emaztêqui becatariarequin, erratenciniolaric, barcatcenzaizcla, anitz becatu, ceren anitz maitatuzuen? Ocena bada berce becatari andibat non datorren zure hitzaren hieslecura nigar anitcequin, eta harc baño becatu gueiagorequin; eta ez badu ere nigarric zure hoin sacratuen garbitceco; Zuc, ene Jesus, issuriduzu zure odol preciosoa munduco becatu gucien garbitceco.

Becatu eguindut Jauna zure contra, meressi duzularic nehurriric gabe maitatua izatea; itsasoco legarrac baño gueiago dira nere becatuac. Ai ene! nola ausartatu nahiz zure asserretcera ene Jaincoa, haren maitagarria zarelaric? Cer ez-nuque emanen, ezbanu ofenditu haren Jaun

un maitagarria! Damu du, Jesus eztia, nere esquergaiztasunaz, damut milla eta milla aldiz zu iraindúaz; eta nahi nuque lehenago zaticatu balitzait bihotza, zuri atsecaberic ttipiena eman baño; gogarcendut firmequi becaturic gueiago ez eguitea, viciac eternidade osobatez iraun behar balaucat ere.

O Jainco eta Jaun hona! Nola dateque oroitcea ofenditu zaitudan guciez, nere bihotza penez, eta minez zatitu gave? Eta, Jaun eztia, urricalzaite nitaz, baldani urriquitua nago nere oguenez, hauc zure contra ofensac izanez, eznadiela egon instante bat gueiago zure desgracian.

Damu dut, ene Jaincoa, nere bihotz guciz zu ofendituaz, ez infernuaren beldurrez, ez ceruaren irabaciaz, baicic soilqui zu zarena izanez, eta ceren maitezaitudan gauza guciac baño gueiago; gogarcendut zure graciarequin ezzaitudala gueiago iraincuco, eta confesatuco nahicela diligencia, eta cuidade guciarequin, hortaraco escarcendatzut humilqui zure laguntza, eta arguia

nere becatuac ezaguteco, eta badut uste e-
manendarazula, eta barcatuco daztazula zu-
-re Pasione Saïnduaren merecimenduez, eta
zure ama vihotz beraren, eta nere ararteco
bacarraren otoitcez.

O ene Jaincoa, milla vici banitu-
queiac emanen nituzque zu ez ofenditcea gatic; eta
nahiago nuque ezbanitz sorthu, eceren ez eguin
oguenic ttipiena zure contra, zarelaric nere
Jaun soberanoa, Jauna, eta Erreguea icara-
-harazten duena, eta meressi duzuna Crea-
-tura guzien amodioa, beldurtasuna, eta erre-
-verencia.

Emen, ene Jaincoa, zauri nazazu,
ehaqui nazazu, erre nazazu, bericotz urri-
-calceco tan nitaz; ecen haren handia da nere
becatuez dudan dolorea eta mina, non na-
-hi bainuque neronen borrero izan, men-
-decatceco zure contra eguin ditudan iraines.

O nere Erostea! Ikusten bazaitut ere
haren asserre, eta iusticiero, halaric ere ez-
-dut etsitcen, ceren zu baitzara misericordi-
-en

en lece zola gavea, zuregana bihurcen den gaizqui eguilleareendaco. Confianza hunequin helcen nahiz, Jauna, nere oguenen dolore, eta urriquiarequin, iaquinic zure beras-tasunac esperacen nauela barcarceco, eta santificarceco, ahoz pescatutic escacen badar-zut misericordia, Magdalenac bezala.

Damu dut ene ariman, Jauna, zu agraviatuaz, edo iraindua harenberceraldiz nere gaistaquerieguin, hortaz dut pena nere bihotzean, eta pena hau nahi nuque haren andia balitz, non huren indarrez hil ba-nendi, eta hori ssilqui zu ofendituaz.

O Jesus maitagarria! O arimen maitatzallea! harremberce maireduzunaz gueroz nerea, ceren creatucinuen zure an-zara, eta erosi zure odolarequin, ocoizten-dut humilqui zure Magestadea, diña-zaitecin nere oguen guciac borrarcea, izan ezdadien nere baitan harenberce gaitz-esten duzun mancharic.

O zore luquen arimabat harengarria, behinere manchatua izan ezdena!

Bañan manchatua dagoenaz gueroz nere gaistaqueriez, eta itsustua nere oguenez, ochurcen nahiz zure gana, urriquituric hec equinaz, gueldirteco elurra bezain ssuri zure gracia Jaincozcoaren iturri ecin agortuan.

Maitatcendut, Jauna, nere entraña guciequin, eta indarrequin, arima, bihotz, eta viciarequin zure hon izate azquengabea, ceren zu baitzara arras maitagarria.

Ongui liteque nere Maisurra eztia ezbanitz behin ere aldaratu zure manamendu Jaincozcoen videtic! Ongui liteque bethi eguin banu zure vorondate Saindua! Ea, nere Jesus dulcea, barcatcitzu nere gazteresuneco ignoranciac, utsac, eta flaquezac, eta urricalzaite becatari dohacabe huntaz, ceren bere becatuez urriquituric suspirioz baitago zure gana. Zu bada Jaincoaren bildotsa zara, munduco becatuac quencentuzuna; borra eta quencitzu, Jaun beratcha, nere becatuac, izan arren anitz, eta astunac zure odol preciosoarequin.

Becatu eguindut, Jauna, becatu eguindut

eguindut

equindut! Cer descargu emandiezaquezut nere vici gaistoaz? Ai ene Jaincoa! eznaiz ausartatcen iarcera zure aitcinean, izanez nere oguenac anitz, eta astunac. Eta iarcen-tanaiz ere zure aitcinean, da ceren Isaias Profetaren mediox erraten dautzun: Ni nahiz nere hon izatez zure becatuac borrar-cen tudana, eta hetaz gueiago oroituco ez-naicena. Eta confianza hunequin aguer-cen nahiz zure Magestadearen aitcinean, barcadietzadatzun gatic nere becatuac zu-re hitz eternalaren aravera, eta hetaz gueiago oroit etzaitecin.

Ya icusten dut, Jauna, ofenditu-zaitudala gravequi, baña hortaz dut da-mu eta dolore hahal bezambat, eta hareque-iago berce dolore berribat damu gueiago ez izanaz. Emendic aitcina erzaitut gue-iago ofendituco, ezdut equinen becatu gueia-goc: arcendut vorondate firmebat ezdar-zudala emanen atsecaberic den gutiena, eta guardatuco tudala fielqui zure legue saindua, eta manamenduac.

O nore ezbalu eguin becaturic! O nore desequin lezaquen munduco atseguintasun falso, eta despreciagarrien erasquena, Jaincoaren gracia eta amodioagatic! Eman nezaque milla aldiz nere vicia, eta munduan den gucia ezbanu ofendiru Jaincobat haren maitagarria.

Vrricalzate nitaz, ene Jaincoa, eta ezdiezadazu evaqui viciaren haria, eta eznazazu deitu iuiciora nere egunen oberenean, bañan emandiezadazu egoa nere becatuez nigar, eta penitencia eguin artaraño. Eta bada ezduzu nahi becatariaren heriotcea, baicic gure arimen salvacionea; ([redacted]) aitordiezadazu nere gaistaqueria gucien eguiazco damu, eta nigarrac, beraiss dadien nere viotceco gogortasuna, eta ardiets dezadan zure vihotz beratic nere oguenen barcamendura.

Naidaxtua nago; ene Jaincoa, behinere zu ez ofenditcera, berealadanic eguinadaucat

proposito firme at dies equiteco zuri ... atsecaberic batere ez ematecó, zure gogoraco obretan emoleatceco, eta nere lehenbeco becatuen satisfacionetan: Ofrecitcen dartzut zure heriotce gucia Sainduá, eta nahi dut bici luzaro, soilqui nere becatuez peniten-cia eguiteco, baiñan nola nahi dén prest nahiz zure Vorondate Sainduaren cumplitcera. Zure escuetan ezartcen dut nere vi-cia, uzten nere vorondatea, eta nahi dut alde gucia eguin dadien zure vorondatea.

Ai Jauna! cembat damu dudan zu ofenditúaz! Ez balitz haren laburra nere becatuez nigar eguiteco gueldiretcen zaidan dembora! Aitzórcen balátazu nere gaixta-aqueriez penitencia rigorosbat eguiteco epea! Céin ciñez eguinen neuquen ene Jaincoa!

Damu dut Jauna haren gaizqui empleatuaz dembora vanidadearen ondoric. Damu dut zure manamendu Sainduac aussiaz, eta zure vorondate Sainduric ur-runduaz, eta damu dut ceren ezduan

damu gueiago. Gaitz esteman eta madari-
-catcen nere macur, eta gaistaqueria guciac,
eta guciez dut damu Zure hon izare az-
-quen gavearen contra izanez.

Eritasun hunetan pasatcen ditudan
pena eta ansia guciac ofrecitcen ditut, ene
Jaincoa, nere becatuen penitencian, eta he-
-quen satisfacione etan izandedi nere heri-
-otcea, cein arcendut gogotic orai; eta nohiz
ere zuc naiduzun, eta zurear[i] unitcendut
delaric han valiosa, ecen harequin erreme-
-diatuacinuen mundu gucia.

Yrzulcen nahiz zure hoñetara, nere
Jesus guciz eztia, urriquituric, eta damu-
-turic, ecen ezdareauena da neretzat zu
gave egotea, erosi ninduzularic zure vicia-
-ren costuz. Eta bada, Jaun guciz hona,
urricalzaite nitaz, quenzazu zure ahur-
-hegia nere becatuetaric, baña ez neregana-
-nic ni zure ichura izanez, eta desegui[n]de-
za zure odol preciosoac, nere oguenec ne-
-re ariman uteizuten malicia.

Barcadietzadazu, Jauna, zure contra e-
guinditudan oguenac, bada icustenduzu nere
bicico egunac direla ezdeusac, laburrac, eta
latzez iragaitendirenac; eta nere oguenac di-
-relaric ceruco izarrac baño gueiago, guti dira
nere egunac penitencia eguiteco. Eta cerren
ongui baitaquit ezduzula nahi nere perdici-
-oñea edo galera, arren ene Jaincoa, eman-
-diezadazu nere oguenez nigar eguiteco epea,
bada ezda haren tipia zu ofenditu az dudan
dolorea, eztacere barcatuco dauztatzulaco con-
fianza, edo usaquida. Beraz, Jaun bihotz-
-berà, itzulzaite graciaz ene arimara nere ari-
-man, ecen hilcinen. guzurtce batean niri ema-
-teco bicia eta zure gloria.

Manchatua nago, ene Jaincoa, zure
contra eguinditudan oguenez, oguen lecebat
nahiz, eta heraz merexi dut eguindezazun
infernu berribat nere tormentatzeco: baña
zure oñetan daducazunaz gueroz munduco
mortuetan harembertce urtez galdua egon-
-den ardia, eta horai zuri misericordia es-
que dagoena, othoi etzaitecila sartu harequin

Contuetan; aicinic arzai hona bezala barca-
-didazazu bere utsac, gueiago amelca ezdadien
ureivetan, eta eror ezdadien etsaien arzaparre-
-tan. O Jaun Soberanoa! Nola aguernahi-
-teque zure aitcinerat harrenberce ofenditu-
-zaitudalaric? O cein ongui errandiezada-
-quezu: Munduari eta Demonioari cerbit-
-zatu dabezuna, alocairuaren esque zohaz he-
-quengana. Aitorcendut, ene Jaincoa, ezna-
-hicela zure aitcinean jarceco dina, nere cul-
-pez nahicela icatza baño beltzago, eta itsusia-
-go, eta erdi errea nagoela nere pasioneen
suharequin: halaric ere haren andia iza-
-nez zure misericordia, bihurcen nahiz zu-
-regana urriquituric; barcadietzadatzun nere
culpac, eta zure odol preciosoaren itsas go-
-rrian ithodietzadatzun. Eta Jaun beratcha
garrinazazu, eta soarinazazu zure gracia-
-ren urviciarequin, eta harequin hilzazu
errerecen nahuen sucha. Comuña emateco ecu-
-nean, zure misericordiac errecivi nazan,
eta zure Justiciac emandiezadan Corna.

Erran diezadazu o nere Jesus hona!
Etcinuen isuri zure zañ sanduetaco odo-
-la, ni hartaz prochatceco? Bada hala de-
-naz gueroz, [illegible]hetara noha, castigaeznaza-
-zun nere culpec merexi bezala; eta bada
zara mercaduria haren valiosa, eta ni ardi
galdua, arnazazu o arzain hona, eta ezar-
-nazazu berceac daudun espitean.

Becatu eguindut Jauna, Ceruaren con-
-tra, eta zure ceroren aitcinean; aitorcen-
dut berce hume galdu bat naicela, eta ez-
-dudala merexi Semearen icena, ofenditu-
zaitudalaric haren lotsa gave, eta axola gave.
Bañan zuc ene Jaincoa, ezduzu utci aitaren
izaira, eta cembatenaz ere guriago merexidu-
-dan zu urricaltasuna, hambatenaz gueiago
aguertuco da zure vihotzberatasuna urrical-
ceaz becatari miserable, eta erromes huntaz.

Urricalzaite nitaz Jauna, eta eznazazu
bota zure honetaric tristezaz betheric; ce-
ren zuc uzten banauzu zure desgracian,
eta etsaiggan, norat goan nahi zeque? Zuc

nere Aita zarelaric erzten badarazu athea; nor deituco dut? eta nore edequico daut? Eta nere Aita guciz maitagarria, beztizazu seme galdu hau, cein heldu baita soñecoac porrocaturic, eta ez zure semea bezala, equendiezadazu soñeco zahar hau, eta emandiezadazu zurea.

Zu zara, Jaun vihotz berachá; nere Aita, zure Seme bacarra entregatucinuena, Colpatua izateco guizonen bechatuac gatic: haren icenean othoi indazu graciaren soñecoa, eta baquezco besarca, eta ezartazu nere escuetan espoz eraztuna. Eguia da ezdudala meressi, baiñan meressi du Jesu Christo zure Semeac: haren merecimenduac, edo oncaiac nereac dira; heraz valiatcen nahiz nere honeraco, eta defensaraco.

## Gogarpeac, eta othoitzac Ainguru Zainzalleari.

Trinitate guciz Sainduaren icenean, Aitaren, Semearen, eta Espiritu Sainduarenean gogarpetcen dut edo protestatcen O nere Ainguru escudanzallea, hilcen nahicela-

Sainduac hitzeiren Fede Catholico, Aposto-
-lico, eta Erromacoan.

Gogarpetcendut nere Ainguerua, zure amparuarequin, eta Jaincoaren graciaren laguntzarequin hilcen naicela, flacatu gabe Esperanzan, eta dudatu gabe Fedean: Confesatcendut nere becatuen gravedadeac, eta numeroac eznauhela descelaircen, iaquinic lazqui andiagoa dela nere Salvatzallearen, eta erosleareh misericordia.

Gogarpetcendut, baldin nere arimaren flaquezaz, eta nohon Juicio, eta Tribunale haren beldurgarriaz, eta etsaia-
-ren tentacionez, eta nere [redacted] arrazoñaren eta discursoaren flaquezaz, nic (Jaincoac permiti ezdezala) dudatcen banu Fedean eta Esperanzan: horcu oroitzapen honean nagolaric revocatcen edo quedeicatcen dut, eta desequiten, Jaincoaren vorondateari arras menpetcen natzaidlaric.

Gogarpetcendut Jaicoaren misericordiaz emanen zaiola becatari urriquitu-
-ari

-ari, eta Confesatuari becatuen barcamendua.
Eta nic deseiatcen eta escatcen dut Jesu
Christo nere Jaunaren heriotce garratzaz,
eta Gurutcean isurrizuen bere odolaren virtu-
tez, eta Virgina guciz Sainduaren [redacted]
othoitcez eta merecimenduez, eta Ainguëru gu-
-cienez, eta berce gañeraco Saindu gucienez.

Gogarpe hauquin, Ainguëru Saindua,
uzten dut nere arimaren testamentutzat, nere
azquen borondate hau, eta halaver deseiat-
-cen dut, escatcen, eta othoizten, ardiesdiece-
-dazun Jesu Christoc Gurutcean nitaz izan-
-zuen aurpegui nigargarri, eta suspirio dolo-
-rosetaric bat; eta halaver Andre Virgina
Mariac Gurutcearen oinean padecitucituen
nigar eta suspirio garratz, eta ahurpegui, eta
begui itzulce penagarri etaric bat. Othoitz-
eguizu nere Ainguëru Saindua, ni izan na-
dien barcamendua merezi izanduren heta-
-ric bat; nic encomendatcen eta uzten dazut
nere azquen ordu hau, harten izan zaite-
cin nere guidaria, nere zainzallea, nere
arguia, eta nere defensa. Amen.

## Hiltcera urbil denean ezia.

Trance beldurgarri huntaraco baliatcen naiz zure vihotz vegiaz O Aita eternoa era Jesus zure Seme bacarrarenaz, eta Espiritu Sainduarenaz.

Jesu Christoren merecimenduez indazu ene Jaincoa ardiez dezadan bederen zure erreinuco azquen lecua.

Orai Jauna deitcendut gucienic zure vihotz-vera, ceren nere arimac badecitcen baitu premiaric andiena.

Berriz deitcen zaitut, ene Jaincoa, icus dezazun nere ttipitasuna, eta ergaitasuna, eta socorri dezazun pobre premia duna.

Damu dut ene Jaincoa vihotz gucitic culpa mortal cembait eguinaz, choilqui zu izanez zarena.

Ampara zazu ô Christo Jesus, zure baitan confiatcen duen criatura hau, ceinaz hilbaitcinen Guruice batean, eta ez bota zure esclavoen numerotic.

Ene Jauna, gucioc ezdeusetaric eguin, eta erosi gaituzuna, lagun nazazu ordu huntan, eta equen diezadazu heriotcearen beldurra.

Zu, nere Jesus, Gurutz[illegible] heriotze-
-aren tormentuetara ofreitucinena, errecivi-
-nazazu zure bihotzeraren alzoan, bada har-
tar valiatcen nahiz ordu hartan.

Nigarrez nago, eta diadarca nere lehene-
-co culpez, ene Jesus eztia, zure contra o-
-fensac izanez, eta zuc niganaco izanduzun
amodioaz.

Escatcendiot zure misericordia au-
-guengarriari barcadietzadala, eta libradeza-
-dala nere arima dragoiñaren ahotic, ceinec
ideguia baitauca ni iretsi nahiz.

Becatorien artean gaitzena nahiz ai-
-tortcendut ene Jaincoa, baña nere beca-
-tuac eztira ttanta bat baicen, zure mise-
-ricordiaren itsasoaren bistan.

Aitortcendut Jauna bilcen naicela Ca-
-tholicoa bezala, sinestendudalaric firmequi
Fede Sainduac eta Eliza ama Sainduac si-
-nesteco manatcen dauhena.

Laguin zazazu, ò Virgina Saindua,
bada eztut beree amparuric; veduira An-
-drea Jesu Christo zure Semeac hiraz izu-

-rizuen-

-tzaun ... ... atela.

O Virgina Maria bihotzberà, nere hone-
-tan izanbedi orain hunan zure Seme ... -
-oaren ... eta etzazula nahi izan haren
misericordia aldaratu dadien neregatic.

Zure gana eldu nahiz O Virgina bihotz
-berà eta Jaincoaren ama nere azquen agoni-
-a huntan, zuc ampara, libra, eta defendi-
nazazu nere etsaietaric.

Esperatcendut Virgina Maria bihotz
-bera, zu nere alde zarelaric, beticotz cantatu-
-co ditudala Jaunaren misericordiac.

Damutzaut ene Jaincoa zu ofenditu az
choilqui zu izanez zarena, eta ceren maite-
zaitudan, eta erreverenciatcen gauza guzien
gañetic. Noraco nahiz zure gana baicen, O!
Jesus hona! errecivinazazu zure misericor-
-diaren entrañac gatic, zure nigarrac, eta
odolagatic. Veguira ò Aita eternoa zure
Christo maiteàren aurpeguia, eta haren amo-
dioz barcadietzadatzu nere becatu guciac.

Zuregana bihurtcen naiz ... Redemptorea; bihurzaite zu neregana nere Esperanza: zu zara nere Jaincoa, nere Salbazallea, eta nere laguntza.

O nere Jaincoa eta nere gauza guciac: ateratcen nauzunaz guero vici huntaric, eraman nazazu zure miseriandiac cantatco ditudan lecura.

Nic maite zaituc ene Jaincoa, Ceruaren, lurraren, eta gauza gucien aitzinean, eta ezdut nahi berceric zu zuganic baicen.

O nore ezbalu eguin becataric hunelaco Jaincoaren contra, nori zohor baitzaio amocio, eta errespetu gucia.

Etzaitecila orroitu Jauna nere lehenengo urteez, aicitic desguineitzu nere becatuac zure zainetaric ateraciren odor triatiteguin.

O Virgina Maria vihotz berà: Hordu huntaraco escatu nauazun favore nere vici gucian: ezdiezadazula ucé, hilnadiela zure escuetan.

Zure oñetan ezarcendut nere arima, nere esperanza gozoa, eta zure escueran fiacendut nere

nere arimaren equiteo guçia.

Zu zara nere Jaincoa, nere Creatzallea, eta nere Redemptorea, eta ezda arima hunen berce javeric zu baicen, errecivi nazazu zurea bezala zure amparuan.

Escarcen datzugu Jesu Christo nere Jauna zure Pasione, eta heriotceaz escrivi nazazula predestinatuen liburuan, zure misericordia a-guerdadien gueiago nere baitan.

Errecivi zazu nere Jaincoa andi galdu hau, arzazu Seme prodigo hau, urricalzaite nitaz zure misericordia andiaren aravera.

Nere ezdeustasunaren eta miserien leceac deitcendu, ene Jaincoa, zure onizate, eta carida-dearen lece ondar gavea.

Haren andia da zure misericordien itsa-so zola gavea, non vicia equendu hatic ere, zure baitan esperatuco baitut.

Urricalzaite nitaz, Jauna, urricalzaite nitaz, cere zure baitan confiatcen baitu nere a-rimac.

Gauza bacar bat escatcen datzut, ene Jaincoa, eta da eznazazula castiga nere cul-pec merexi bezala, baicic vequira dezazula nor

-zaren.

Erreçibizazu nere arima, cein usten bai-
-tut zure misericordiaren escuetan, eta zure Glo-
-rian equizu limosna Paraüsuarequin.

Misericordia, Jauna, Misericordia, damu-
dut bihotcez zure hon mugagabea ofendituaz.

Maria Graciaren ama, Misericordiaren
ama, zuc zahin nazazu nere etsaiarengandic,
eta lagun nazazu nere heriotceco orduan.

Sinestendut Jaincoan, esperatcendut Ja-
-incoan, eta maitatcendut Jaincoa, eta damu-
dut haren ofendituaz, ceren den, dena.

O Trinitate guciz Saindua, Jainco bacar-
-bat, eta irur Presuna distintoac, cein confesat-
cen, eta adoratcen baitut, urricalzaite zure Cre-
-atura huntaz.

Orai da misericordien dembora; eta
horai aguertzazu, cein beracha zaren urri-
quituric helcendenaren barcatceco.

Eia ene Jaincoa aguertzazu zure mi-
sericordia zure baitan esperatcen duen be-
catari miserable hunequin.

Maite zaitut, ene Jaincoa, gauza gucien
gañetic: damudut Jauna zu ofendituaz.

Esperatcendut zure misericordietan azquen atseraño.

Jesus Jainco viciaren Semea urricalzaite nitaz: Becatu eguindut Jauna, becatu eguindut: nere honetan izanbedi nitaz isuricinduen odola.

O Jesus munduaren Salvatzallea! izanzaite neretaco Jesus.

O Virgina Maria Jaincoaren ama! oroitzaite nitaz.

O Jesus dulcea! O Maria dulcea eznazazuela desampara.

Zure escuetan Jauna encomendatcendut nere espiritua, nere azquen atsa.

# Bendicn. de Habito de N. Sa. del C.

℣. Ostende nobis Domine misericordiã tuã.
℟. Et salutare tuum da nobis.
℣. Domine Deus virtutum converte nos.
℟. Et ostende faciẽ tuã, et salvi erimus.
℣. Domine exaudi orationem meam.
℟. Et clamor meus ad te veniat
℣. Dominus vobiscũ. ℟. Et cum Spiritu tuo.

Oremus

Supliciter te Domine rogamus, ut super hunc Habitum (servi tui, vel famulæ tuæ) imponendum bene✠dictio tua benigna descendat, ut sit benedictus, atque Divina virtute procul pellantur hostium nostrorum visibilium, et invisibilium tela nequissima. Amen.

Oremus

Caput omnium fidelium Deus, et humani generis Salvator hunc habitũ quem propter tuum, tuæque Genitricis

Virginis Mariae de monte Carmeli
amorē atque devotionem (servus tuus, vel
famula tua) est delaturus dextera tua
sanctificet ✠, et hoc quod per illum mis-
tice datur intelligi, tua semper custodia
corpore et animo servetur, et ad remu-
-nerationem perpetuam cum Sanctis omni-
bus felicissime perducatur. Qui vivis,
et regnas in saecula saeculorum. Amen.
Oremus. Creator, Conservator, et Salva-
-tor omnium, largitor humanae salutis
Deus, et dator gratiae spiritualis, be-
-nedictionem ✠ tuam super hunc habitū
immitte ut qui eum gestaverit, caelesti
virtute munitus, fidem integram, spem
firmam, et Charitatem desideratam te-
neat, et a te numquam separari per-
mittas. Qui vivis et regnas in saecula
saeculorum. Amen

Deinde aspergat habitum cum aqua
benedicta dicendo. Asperges me hisopo
et mundabor etc.